**EXTRACTO DE LOS ACUERDOS ADOPTADOS EN EL PLENO ORDINARIO Nº 1/20 DE 6 DE FEBRERO DE 2020.**

**ACTA**

**2.-APROBACIÓN INICIAL, SI PROCEDE, DEL PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES 2020-2023.**

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar inicialmente, el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento para los años 2020 a 2023 y someterlo a exposición pública mediante Anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia y en la página web del Ayuntamiento para que se presenten alegaciones por los interesados. Si no se presentasen alegaciones en el plazo de exposición se considerará automáticamente aprobado de forma definitiva el Plan, sin necesidad de acuerdo plenario. Si será necesario nuevo acuerdo de pleno para la aprobación definitiva en el supuesto de que se presentasen alegaciones contra el Plan.

**3.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LA ASIGNACION DEL 0,3% DE LA MASA SALARIAL, FONDO ADICIONAL DE LOS AÑOS 2018 Y 2019.**

[...]

Se aprueba por unanimidad de los asistentes la propuesta de asignación de los importes del 0,3% al complemento específico de los empleados municipales […]

**4.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LAS BASES REGULADORAS DE LA SUBVENCION DIRECTA A LA ASOCIACION "HOGAR DEL JUBILADO PABLO PUERTO" DE SOPUERTA.**

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar las Bases reguladoras de la subvención directa a la Asociación Hogar del Jubilado de Sopuerta para financiar el programa de actividades de 2020.

**5.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LAS BASES REGULADORAS DE LA SUBVENCION DIRECTA A LA ASOCIACION AMPA EZKURRA DEL COLEGIO SAN VIATOR DE SOPUERTA PARA EL EJERCICIO 2020.**

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes:

Aprobar las Bases reguladoras de la subvención directa a la Asociación AMPA EZKURRA del Colegio San Viator para financiar el programa de actividades de 2020.

**6.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LA APLICACIÓN A LOS EMPLEADOS MUNICIPALES DEL INCREMENTO SALARIAL DEL 2% PARA EL AÑO 2020.**

[...]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar la aplicación a los empleados municipales del incremento de las retribuciones en el ejercicio 2020 del 2% de conformidad

con el art. 3, Dos del Real Decreto-ley 2/2020, de 21 de enero de 2020 por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público, y en cumplimiento de la recomendación de EUDEL, en su circular informativa sobre incrementos retributivos 2020, Real Decreto-ley 2/2020, de fecha 24 de enero.

**7.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LOS EXPEDIENTES DE RECONOCIMIENTO EXTRAJUDICIAL DE CREDITOS A FAVOR DE LAS SIGUIENTES MERCANTILES:**

**1.- ASESORIA I. GORDOBIL. S.L.**
**2. CONTENEDORES OTXARAN S.L.**
**3. AITZIBER SARACHAGA GARAY.**
**4. TAYFER 2002. S.L.**
**5. URBEGUI SERVICIOS AUXILIARES S.L.**
**6. CANTERA LACILLA**
**7. CIRTELCOM TELECOMUNICACIONES**

[...]

Se acuerda por la mayoría simple de votos a favor, 4 y ninguno en contra, aprobar los expedientes de reconocimiento extrajudicial de créditos presentados […]

**8.- DAR CUENTA DEL INFORME SOBRE LAS CUENTAS DE LAS ENTIDADES LOCALES DE LA CAPV 2017.**

[...]

Dada cuenta se dan por enterados.

**9.- DAR CUENTA DE LA DECLARACION OFICIAL DE LA CIFRA DE POBLACION A 1 DE ENERO DE 2019.**

Se da cuenta de la declaración oficial de la cifra de población referida a 1 de enero de 2019 que es de **2527** habitantes.

Dada cuenta se dan por enterados.

**10.- DAR CUENTA DE LA DESIGNACION DE D. GERMAN GAZPIO SAMPAYO COMO SUPLENTE DE D. JESUS MARIA MENA EN ENKARTUR.**

[...]

Se designa por unanimidad de los asistentes a D. Germán Gazpio Sampayo como representante suplente del Ayuntamiento de Sopuerta en Enkartur, para los casos en que no pueda acudir el titular D. Jesús Mari Mena Mauriz.
Se notificará el presente acuerdo al interesado, para que acepte el nombramiento y a Enkartur.

**11.- DAR CUENTA DE LOS VOCALES SUPLENTES DESIGNADOS POR EL GRUPO POLITICO EAJ-PNV EN LA COMISION DE ASUNTOS DE PLENO Y EN LA COMISION ESPECIAL DE CUENTAS E INFORMATIVA DE ECONOMIA, HACIENDA, PATRIMONIO Y PERSONAL.**

Corresponde designar a los suplentes de los representantes del EAJ-PNV, en la Comisión Especial de Cuentas y en la Comisión de Asuntos de Pleno.
Se propone designar a los siguientes suplentes del EAJ- PNV en la Comisión Especial de Cuentas.

Presidenta suplente: Dª Mamen Etxebarria Berasaluze, 1ª Teniente de alcalde
Vocal representante del EAJ-PNV suplente: D. Unai Antón Castelao.

Se propone designar a los siguientes suplentes del EAJ- PNV en la Comisión Informativa de Asuntos de Pleno:

Presidenta suplente: Dª Irantzu Ibarrondo Abad.
Vocal suplente del EAJ-PNV: Dª Rebeca García Artiach.
Se designan por unanimidad a los propuestos.

**PARTE DEDICADA A CONTROL.**

**12.- DAR CUENTA DEL RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO INTERPUESTO POR CONSTRUCCIONES Y DESMONTES RIBERA NAVARRA S.A. CONTRA EL DECRETO 586/19 DE 4 DE OCTUBRE.**

Se da cuenta al pleno de que se ha notificado el 27 de noviembre de 2019, la interposición de un recurso contencioso-administrativo, ordinario 313/2019, interpuesto por Construcciones y Desmontes Ribera Navarra, S.A. contra el Decreto 586/19 de fecha 4 de octubre de 2019, de la alcaldesa-presidenta del Ayuntamiento de Sopuerta, que resuelve "aprobar la certificación –liquidación de la obra de " Derribo de inmueble situado en el nº 1 de la Calle/Barrio de Mercadillo" por importe de 40.532,02 €", pendiente de resolución a esta fecha.

**13.- DAR CUENTA DEL RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO INTERPUESTO POR Dª TAMARA FERNANDEZ OCHOA CONTRA EL DECRETO 410/18 DE 27 DE AGOSTO.**

Se da cuenta al pleno de que con fecha 20 de noviembre de 2018, se notificó la interposición de un recurso contencioso-administrativo, ordinario 335/2018, interpuesto por Dª TAMARA FERNANDEZ OTXOA, contra el Decreto nº 410 de 27/08/2018, dictado en el expediente 2018-0143, que deniega licencia de obras para vivienda preexistente en la calle Mercadillo nº 55, que se encuentra suspendido a esta fecha a petición de la recurrente.

**14.- DAR CUENTA SUCINTA DE LAS RESOLUCIONES MUNICIPALES DICTADAS DESDE LA ÚLTIMA SESION PLENARIA.**

[...]

Se da cuenta al Pleno de que desde la última sesión plenaria, se han dictado las siguientes Resoluciones de Alcaldía: Desde el Decreto nº 686/19, de 7 de noviembre, hasta el Decreto nº 9/20 de 17 de enero.

Concluido el orden del día, y antes de pasar al turno de ruegos y preguntas, D. Agustín Cuadrado Torre, Portavoz del Grupo EH Bildu, en su nombre y en la del Grupo Independiente, solicita a la Presidenta que se someta a votación la inclusión de un asunto fuera

del orden del día, una Moción motivando la urgencia, en la situación personal del afectado por la Moción.

D. Jesús María Mena, Portavoz de la Agrupación Independiente también solicita la inclusión fuera del orden del día, de una MOCION que presenta, motivando la urgencia de la inclusión, en que es un bien para el pueblo.

Se somete en primer lugar, a votación la inclusión de estas mociones en el orden del día para su posterior debate y votación.

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, incluir las dos mociones presentadas en el orden del día de la sesión.

**15.- ASUNTO INCLUIDO FUERA DEL ORDEN DEL DIA. MOCION DE EH BILDU Y AEI. PROPUESTA QUE SE SOMETE AL PLENO SOBRE D. JAVIER HURTADO VEGA.**

[...]

A continuación por la Secretaria se procede a dar lectura a la Moción, a petición de los portavoces de los grupos proponentes:

*"MOCIÓN AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE SOPUERTA*

*1º Hechos acontecidos:*

*a) La inspección de Trabajo ha emitido RESOLUCIÓN en el 2017 por la cual establece que Javier Hurtado Vega, que realiza funciones de aparejador, pasa a ser TRABAJADOR LABORAL, con efecto retroactivo al 2013.*

*b) Que la inspección de Trabajo da de alta en la Seguridad Social a Javier Hurtado Vega con efecto retroactivo al año 2013 y a partir dela RESOLUCIÓN el Ayuntamiento abona a la Seguridad Social la cuota correspondiente al Trabajador Javier Hurtado Vega.*

*c) Que el Pleno del Ayuntamiento celebrado en Julio de 2018 acepta la RESOLUCIÓN de la Inspección de Trabajo y abona el importe de 108.993,35€ en concepto de las cuotas debidas desde el 2013 por la incorporación a la PLANTILLA DE PERSONAL DEL AYUNTAMIENTO.*

*d) Que en el citado Pleno se aprueba por unanimidad aceptar la RESOLUCIÓN de la Inspección de Trabajo y el cumplimiento de la misma, además de abonar la cantidad citada en el punto anterior, acuerda modificar la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Sopuerta creando una nueva plaza de arquitecto técnico / aparejador como personal laboral indefinido. Y así mismo modificar las partidas afectadas del capítulo 1 de gastos del presupuesto municipal para incluir las retribuciones y cotizaciones correspondientes al puesto de Javier Hurtado Vega.*

*e) Que en el Pleno de Noviembre pasado, dicho Pleno por unanimidad ratificó el acuerdo del Pleno de Julio de 2018, citado en el apartado c).*

*f) Que la ratificación de aceptación de la RESOLUCIÓN emitida por la Inspección de Trabajo fue motivada por la multa cursada por dicha Inspección de Trabajo por un importe de 25.000 €, debido a la inactividad en el cumplimiento del acuerdo tomado por el Pleno de Julio de 2018, por no abonar las nóminas y no incluir en la Plantilla Presupuestaria a Javier Hurtado Vega.*

*g) Que por parte de la Alcaldía se pidió a los Grupos Municipales que firmasen un escrito para trasladar a la Inspección de Trabajo, donde la corporación del Ayuntamiento de Sopuerta, se comprometía a cumplir con la RESOLUCIÓN. La Alcaldía encomendó a un abogado externo la gestión personal de manifestar a la Inspección de*

*Trabajo que se iba a cumplir con la RESOLUCIÓN, aprobada por unanimidad por el PLENO de julio de 2018, con el fin de que la sanción, en principio de 25.000 € se rebajase a 15.000 €.*

*h) Que a esta fecha no se ha cumplido con los acuerdos plenarios aprobados, en ambos casos por unanimidad en julio de 2018 y noviembre de 2019, debiendo al Trabajador Javier Hurtado Vega las nóminas de diciembre 2019 (mes y extraordinaria) y la de enero pasado.*

*2º Se acuerda por este Pleno:*

*a) Iniciar de inmediato la modificación presupuestaria para incluir a Javier Hurtado vega en la Plantilla Presupuestaria como Personal laboral con funciones de Aparejador y dotar de la correspondiente partida dineraria para atender los derechos de Trabajador en los pagos de nómina y cuotas a la Seguridad Social.*

*b) Abonar inmediatamente las nóminas pendientes de diciembre 2019 (2) y enero 2020.*

*c) Solicitamos a la Alcaldía que lleve a cabo un análisis de los hechos que han vuelto a generar esta situación de impago de las nóminas a Javier Hurtado Vega, contraviniendo los acuerdos de los Plenos reiteradamente mencionados en esta moción, así como la resolución de la Inspección de Trabajo y que dé cuenta de los resultados de este análisis a la corporación municipal en el próximo pleno. Con el fin de conocer los motivos que están generando la pérdida de capacidad financiera por atender a las sanciones de la Inspección de Trabajo, siendo esto un perjuicio para los vecinos y vecinas de Sopuerta y tomar si fuese necesario las medidas oportunas."*

[…]

Se vota por todos los asistentes a favor de la petición de retirada de la moción y por unanimidad de los concejales presentes se retira la moción.

Se formula la propuesta que se va a someter al pleno: Pagar las deudas pendientes con D. Javier Hurtado de diciembre y enero, reconociendo la obligación de pago, por el pleno en este acto, con cargo a una partida extrapresupuestaria, pero que se regularice la situación.

[..]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes aprobar la propuesta anterior y pagar a D. Javier Hurtado, con cargo a una partida extrapresupuestaria, las deudas pendientes de abono, obligación económica que se reconoce en este pleno, correspondientes a los meses de diciembre de 2019 y enero de 2020 y mientras que se regularice la situación.

**16.- ASUNTO INCLUIDO FUERA DEL ORDEN DEL DÍA. MOCION DE LA AEI. PROPUESTA QUE SE SOMETE DIRECTAMENTE AL PLENO SOBRE OBRAS MUNICIPALES.**

Comienza este punto dando lectura la Secretaria al texto íntegro de la propuesta, a petición del portavoz del grupo proponente de la moción:

" *MOCIÓN QUE PRESENTA EL GRUPO INDEPENDIENTE AEI CON CARÁCTER DE URGENCIA PARA SER SOMETIDA A LA CONSIDERACIÓN DEL PLENO MUNICIPAL DE SOPUERTA.*

*Dado que en los dos últimos años de la anterior legislatura no se pudieron poner en marcha una serie de Proyectos de Obras y Memorias Valoradas para mejorar los Servicios Municipales, y comprobando fehacientemente, que la liquidación del Presupuesto de 2018, mediante Informe 7/2.019 de la Sra. Secretaria Interventora , y Decreto de Alcaldía de*

*fecha 19 Febrero de 2019 tenía un remanente de tesorería de 3.279.186,74 €, para poder haber acometido sobradamente dichas obras legalmente con cargo al remanente de tesorería, respetando la regla de gasto NORMA FORAL 5/2013, 12 de Junio. Y que estos proyectos de obras ya se encontraban realizados en su primera fase desde hace dos años a espera de ser finalizados para poder ser disfrutados por los vecinos del pueblo, y las Memorias valoradas paralizadas totalmente por la inactividad para impulsar los expedientes administrativos.*

*En el último año de la anterior Legislatura el equipo de Gobierno constituido por AEI, acabó la primera fase de una serie de servicios municipales, entre los cuales la Rehabilitación del Centro Cívico municipal de Antonio Trueba, quedando a la espera de la aprobación y ejecución de la segunda fase. Durante el último año AEI solo pudo terminar el Proyecto de la ampliación del Gimnasio municipal de 129,902 m2. A pesar de que el nuevo gimnasio está totalmente equipado con las máquinas y complementos (bicis estáticas, caminadora, espejos, pesas, aire acondicionado etc) desde hace nueve meses, inexplicablemente sigue sin entrar en servicio para ser utilizado por los vecinos del pueblo.*

- *En primer lugar, solicitamos que se realicen los trámites pertinentes para la adjudicación administrativa de la ampliación del nuevo Gimnasio municipal en el Centro Cívico Antonio de Trueba, dado que lleva 9 meses sin que el equipo de Gobierno actual (PNV) haya realizado trámite alguno*

- *En segundo lugar, solicitamos que se tramite, vía administrativa, la segunda fase de los tres Proyectos de Obras incluidas dentro del nuevo plan de Rehabilitación interior del Centro Cívico Antonio de Trueba.*

*1º- Segunda Fase del Proyecto, Nuevo Salón de Actos múltiples de 301,20 m2. Con 165 butacas en el Semisótano, en parte del antiguo Cine Antonio de Trueba.*
*2º- Segunda Fase del proyecto, Nuevo Gazte Txoko de 190,79 m2. A nivel de la calle.*
*3º- Segunda Fase del Proyecto, Planta de nueva construcción de 369,63 m2. A disposición de las Asociaciones"*
[...]

Concluido el debate y conocido el informe jurídico en contra de la Secretaria-Interventora, el grupo proponente la AEI antes de proceder a la votación, solicita la retirada del asunto del orden del día.

Se vota por todos los asistentes a favor de la petición de retirada de la moción y por unanimidad de los asistentes no se votará la propuesta de acuerdo.

**17.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

**2020ko OTSAILAREN 6ko 1/20 ZENBAKIKO OSOKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA**

**AKTA**

**2.- HASIERAN ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2020-2023 ALDIRAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA.**

[...]

Bertaratuek aho batez erabaki dute hasieran onestea 2020-2023 aldirako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta jendaurrean jartzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean argitaratuta, interesdunek alegazioak aurkez ditzaten. Jendaurrean jartzeko epean alegaziorik aurkeztu ezean, automatikoki behin betiko onartutakotzat joko da Plana, Udalbatzaren akordiorik behar izan gabe. Aitzitik, Udalbatzaren akordioa beharko da Plana behin betiko onesteko haren kontrako alegazioren bat aurkezten bada.

**3.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SOLDATA MASAREN % 0,3 ESLEITZEA, 2018 ETA 2019ko FUNTS GEHIGARRIA.**

[...]

Bertaratuek aho batez onetsi dute zenbatekoen % 3 udal-langileen berariazko osagarrira esleitzeko proposamena […]

**4.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SOPUERTAKO "PABLO PUERTO ERRETIRATUEN ETXEA" ELKARTEARI DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK.**

[...]

Bertaratuek aho batez erabaki dute Sopuertako Erretiratuen Etxea Elkarteari dirulaguntza zuzena emateko oinarri arautzaileak onestea, 2020ko jarduera-programa finantzatzeko.

**5.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2020 EKITALDIRAKO SOPUERTAKO SAN VIATOR IKASTETXEKO EZKURRA IGEari DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK.**

[...]

Bertaratuek aho batez erabaki dute

2020 ekitaldirako Sopuertako San Viator ikastetxeko Ezkurra IGEari dirulaguntza zuzena emateko oinarri arautzaileak onartzea.

**6.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, UDAL-LANGILEEI 2020 URTERAKO SOLDATA % 2 AREAGOTZEA.**

[...]

Bertaratuek aho batez erabaki dute 2020 ekitaldian udal-langileei ordainsariak % 2 areagotzea, bat etorriz 2020ko urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretuaren (sektore publikoaren esparruko ordainsariei buruzko premiazko neurriak hartzekoa) 3. artikuluarekin, eta EUDELek urtarrilaren 24an ordainsariak areagotzeari (2/2020 Errege Lege Dekretua) buruz eginiko zirkularrean zabaldutako gomendioari jarraikiz.

**7.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, KREDITUAK JUDIZIOZ KANPO AITORTZEKO ESPEDIENTEAK ENPRESA HAUEI:**

**1.- ASESORIA I. GORDOBIL SL**
**2. CONTENEDORES OTXARAN SL**
**3. AITZIBER SARACHAGA GARAY**
**4. TAYFER 2002 SL**
**5. URBEGUI SERVICIOS AUXILIARES SL**
**6. CANTERA LACILLA**
**7. CIRTELCOM TELECOMUNICACIONES**

[...]

Aldeko botoen gehiengo soilez (aldeko 4 boto eta kontrako bat ere ez) erabaki da kredituak judizioz kanpo aitortzeko aurkeztutako espedienteak onestea […]

**8.- 2017ko EAEko TOKI ERAKUNDEEN KONTUEI BURUZKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA.**

[...]

Berri eman da eta jakinaren gainean geratu dira.

**9.- 2019ko URTARRILAREN 1eko BIZTANLERIA ZIFRAREN ADIERAZPEN OFIZIALAREN BERRI EMATEA.**

2019ko urtarrilaren 1eko biztanleria-zifraren adierazpen ofizialaren berri eman da: **2.527** biztanle.

Berri eman da eta jakinaren gainean geratu dira.

**10.- ENKARTURREN GERMAN GAZPIO SAMPAYO JAUNA JESUS MARIA MENA JAUNAREN ORDEZKO GISA IZENDATU DUTELA JAKINARAZTEA.**

[...]

Bertaratuek aho batez erabaki dute Germán Gazpio Sampayo jauna Sopuertako Udalaren ordezko ordezkari izendatzea Enkarturren, Jesús Mari Mena Mauriz jauna (titularra) ez dagoenerako.
Erabaki honen berri emango zaio interesdunari, izendapena onar dezan, baita Enkarturri ere.

**11.- EAJ-PNV TALDE POLITIKOAK OSOKO BILKURAKO GAIEN BATZORDERAKO ETA KONTUEN BATZORDE BEREZIRAKO ETA EKONOMIA, OGASUN, ONDARE ETA LANGILEEN INFORMAZIO BATZORDERAKO IZENDATUTAKO ORDEZKO KIDEEN BERRI EMATEA.**

EAJ-PNVk ordezkarien ordezkoak izendatu ditu Kontuen Batzorde Berezirako eta Osoko Bilkurako Gaien Batzorderako.

Proposatu da EAJ- PNVko ordezko hauek izendatzea Kontuen Batzorde Berezirako:

Ordezko presidentea: Mamen Etxebarria Berasaluze and., 1. alkateordea
EAJ-PNVko ordezkari kidearen ordezkoa: Unai Antón Castelao jn.

Proposatu da EAJ- PNVko ordezko hauek izendatzea Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzorderako:

Ordezko presidentea: Irantzu Ibarrondo Abad and.
EAJ-PNVko ordezko kidea: Rebeca García Artiach and.
Izendapenak egin dira aho batez.

**KONTROLA.**

**12.- CONSTRUCCIONES Y DESMONTES RIBERA NAVARRA SAk URRIAREN 4KO 586/19 DEKRETUAREN AURKA JARRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatzari jakinarazi zaio 2019ko azaroaren 27an 313/2019 ohiko administrazioarekiko auzo-errekurtsoaren berri eman zela. Errekurtso hori Construcciones y Desmontes Ribera Navarra SAk jarri zuen Sopuertako Udaleko alkate-udalburuaren 2019ko urriaren 4ko 586/19 Dekretuaren aurka. Dekretu horren bidez ebatzi zen “Mercadillo kalea/auzoa 1 helbideko higiezina eraisteko obraren ziurtagiria-likidazioa onestea, 40.532,02 euroan”. Ebazteke dago oraindik.

**13.- TAMARA FERNANDEZ OCHOA ANDREAK ABUZTUAREN 27ko 410/18 DEKRETUAREN AURKA JARRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatzari jakinarazi zaio 2018ko azaroaren 20an 335/2018 ohiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren berri eman zela. Errekurtso hori TAMARA FERNANDEZ OTXOA andreak jarri zuen, 2018/08/27ko 410 zenbakiko Dekretuaren aurka (2018-0143 esp.), zeinaren bidez Mercadillo kalea 55 helbideko aldez aurretiko etxebizitzan obrak egiteko lizentzia ukatu baitzen. Gaur egun, indargabetuta dago, errekurtsogileak hala eskatuta.

**14.- AZKEN OSOKO BILKURATIK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

[...]

Udalbatzari jakinarazi zaio azken osoko bilkuratik honako Alkatetza Dekretu hauek eman direla: Azaroaren 7ko 686/19 zenbakiko Dekretutik urtarrilaren 17ko 9/20 zenbakiko Dekretura.

Eguneko aztergaien zerrenda bukatuta, eta galde-eskeen atalera igaro aurretik, EH Bildu taldeko ordezkari Agustín Cuadrado Torre jaunak, bere taldearen eta AEIren izenean, alkate-udalburuari eskatu dio eguneko aztergaien zerrendatik kanpoko gai bat bertan sartzeko bozketa egitea. Mozio bat da, eta premiazkoa da kaltetuaren egoera pertsonala dela eta.

AEIko bozeramaile Jesús María Mena jaunak ere eskatu du eguneko aztergaien zerrendatik kanpo MOZIO hori sartzea. Adierazi du premiazkoa dela herriarentzako onuragarria delako.

Hasteko, mozioak eguneko aztergaien zerrendan sartzeari buruzko bozketa egin da, ondoren eztabaidatu eta bozkatzeko.

Bertaratuek aho batez erabaki dute aurkeztutako bi mozioak eguneko aztergaien zerrendan sartzea.

**15.- EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDATIK KANPO SARTUTAKO GAIA. EH BILDU ETA AEI TALDEEN MOZIOA. JAVIER HURTADO VEGA JAUNARI BURUZKOA, UDALBATZARI AURKEZTUTAKOA.**
[...]

Jarraian, idazkariak mozioa irakurri du, bi talde horietako bozeramaileek hala eskatuta:

*"SOPUERTAKO UDALEKO UDALBATZARI ZUZENDUTAKO MOZIOA*

*1. Gertakariak:*

*i) Laneko Ikuskaritzak EBAZPEN bat eman zuen 2017an. Horren bidez ezarri zen Javier Hurtado Vega, aparejadore-lanak gauzatzen dituena, KONTRATUPEKO LANGILE izatera igaroko zela, 2013rako atzeraeraginezko ondoreekin.*

*j) Laneko Ikuskaritzak Javier Hurtado Vegari alta eman zion Gizarte Segurantzan, 2013rako atzeraeraginezko ondoreekin, eta EBAZPENETIK aurrera, Udalak Gizarte Segurantzari ordaindu dio Javier Hurtado Vega langileari dagokion kuota.*

*k) 2018ko uztailean eginiko osoko bilkuran onartu egin zen Laneko Ikuskaritzaren EBAZPENA, eta 108.993,35 €-ko zenbatekoa ordaindu zen 2013tik zor ziren kuoten kontzeptuan, UDAL PLANTILLAN gehitzeagatik.*

*l) Osoko bilkura horretan aho batez onetsi zen Laneko Ikuskaritzaren EBAZPENA onestea eta hura betetzea, baita aurreko puntuan adierazitako zenbatekoa ere. Horrez gain, erabaki zen Sopuertako Udaleko lanpostu-zerrenda aldatzea, arkitekto tekniko / aparejadore plaza berri bat sortuz, langile lan-kontratudun finko gisa. Eta, halaber, udal-aurrekontuko gastuen 1. kapituluan eragindako partidak aldatzea, Javier Hurtado Vegaren lanpostuari dagozkion ordainsariak eta kotizazioak sartzeko.*

*m) Aurreko azaroko osoko bilkuran, Udalbatzak aho batez berretsi zuen 2018ko uztaileko osoko bilkurako erabakia, c) atalean aipatutakoa.*

*n) Laneko Ikuskaritzak eginiko EBAZPENAREN onespenaren berrespena egin zen Laneko Ikuskaritza berak 25.000 €-ko isuna jarri zuelako 2018ko uztailean Udalbatzak hartutako erabakiaren betetzearen inguruko aktibitate ezagatik, Javier Hurtado Vegari nominak ez ordaintzeagatik eta aurrekontu-pantillan ez sartzeagatik.*

*o) Alkatetzak udal-taldeei eskatu zien Laneko Ikuskaritzari igortzeko idazki bat sinatzea, non Sopuertako Udalbatzak EBAZPENA betetzeko konpromisoa hartu baitzuen. Alkatetzak kanpoko abokatu bati agindu zion Laneko Ikuskaritzari EBAZPENA (UDALBATZAK 2018ko uztailean aho batez onetsitakoa) beteko zela adierazteko kudeaketa pertsonala, zehapenaren zenbatekoa (25.000 €, hasiera batean), 15.000 €-ra murrizteko.*

*p) Gaurko egunean, ez dira bete 2018ko uztailean eta 2019ko azaroan Udalbatzak aho batez onetsitako akordio horiek. Javier Hurtado Vega langileari 2019ko abenduko (hilekoa eta apartekoa) eta aurreko urtarrileko nominak zor zaizkio.*

*2. Udalbatzak erabaki du:*

*d) Aurrekontu-aldaketa berehala egitea, Javier Hurtado Vega aurrekontu-plantillan sartzeko, aparejadore-eginkizunak gauzatzen dituen langile lan-kontratudun gisa; eta dagokion diru-partida hornitzea langilearen eskubideak artatzeko nominak ordaintzeari eta Gizarte Segurantzaren kuotei begira.*

*e) Zor zaizkion nominak (2019ko abenduko biak eta 2020ko urtarrilekoa) berehala ordaintzea.*

*f) Alkatetzari eskatzen diogu gertakariak sakon aztertzea, Javier Hurtado Vegaren nominak ez ordaintzearen egoera zergatik errepikatu den ikusteko, mozio honetan behin eta berriro adierazitako Udalbatzaren erabakien kontra eginez, baita Laneko Ikuskaritzaren ebazpenaren kontra ere. Era berean, eskatzen diogu azterketa sakon horren berri eman dezala hurrengo osoko bilkuran. Laneko Ikuskaritzaren zehapenak artatzeko gaitasun finantzarioaren galera sortzen ari diren arrazoiak jakin nahi ditugu, Sopuertako bizilagunei eragiten dien gaia denez gero. Beharrezkoa balitz, dagozkion neurriak hartu behar genituzke.*

[…]

Bertaratu guztiek mozioa baztertzeko eskaeraren alde bozkatu dute, eta aho batez, mozioa baztertu da.

Udalbatzari proposatuko zaiona formulatu da: Udalbatzak Javier Hurtadori zor dizkion abenduko eta urtarrileko nominak ordaintzea, ekitaldi honetan, ordaintzeko betebeharra aitortuz, aurrekontuz kanpoko partida baten kargura; baina egoera erregularizatu dadila.

[..]

Bertaratuek aho batez erabaki dute aurreko proposamen hori onestea eta Javier Hurtadori zor zitzaizkion zenbatekoak ordaintzea (2019ko abendukoak eta 2020ko urtarrilekoa), aurrekontuz kanpoko partida baten kargura. Era berean, ordaintzeko betebeharra onartu dute, eta egoera erregularizatu beharra dagoela.

**16.- AZTERGAIEN ZERRENDATIK KANPOKO GAIA. AEIren MOZIOA. UDAL OBREI BURUZ ZUZENEAN OSOKO BILKURAN AZTERTUKO DEN PROPOSAMENA.**

Mozioa proposatu duen taldeko bozeramaileak eskatu ostean, idazkariak proposamenaren testu osoa irakurri du:

*"SOPUERTAKO UDALAREN UDALBATZA OSOAK AZTERTZEKO AEI TALDE INDEPENDENTEAK PREMIAZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.*

*Aurreko legealdiko azkeneko bi urteetan udal-zerbitzuak hobetzeko hainbat obra-proiektu eta memoria balioetsi ezin izan ziren abian jarri. Gainera, modu frogagarrian egiaztatu da, idazkari kontu-hartzailearen 7/2019 Txostenaren eta 2019ko otsailaren 19ko Alkatetzaren Dekretuaren bitartez, 2018ko aurrekontuaren likidazioan 3.279.186,74 euroko diruzaintzako gerakina zegoela horren kargura legez aipatutako obrei aurki aurre egiteko, betiere ekainaren 12ko 5/2013 FORU ARAUAK xedatzen duen gastuaren araua errespetatuta. Izan ere, obra-proiektuak duela bi urte dagoeneko lehenengo fasean eginak zeuden amaitzearen zain, herriko biztanleek gozatu ahal izateko. Halaber, memoria balioetsiak erabat geldituta daude, administrazio-espedienteak bultzatzeko jarduerarik ez baitago.*

*Aurreko legealdiko azkeneko urtean AEIk osatutako gobernu-taldeak zenbait udal-zerbitzuren lehenengo fasea amaitu zuen, besteak beste, Antonio Trueba Auzo Etxea birgaitzea. Hala, bigarren fasea onestea eta egikaritzea besterik ez da gelditzen. AEIren azkeneko urtean 129,902 $m^2$-ko udal-gimnasioa zabaltzeko proiektua amaitu ahal izan zen bakarrik. Nahiz eta orain dela bederatzi hilabete gimnasio berria makina eta osagaiekin (bizikleta estatikoak, ibiltzeko makina, ispiluak, pisuak, aire egokitua, etab.) oso-osorik*

*ekipatua egon, ulergaitza bada ere, herriko bizilagunek erabil dezaten ez da funtzionatzen ari.*

- *Lehenik eta behin, Antonio Trueba Auzo Etxean udal-gimnasio berriaren hedapena administrazioaren ikuspegitik esleitzeko izapideak egiteko eskatzen dugu, dagoeneko 9 hilabete baitaramatza egungo gobernuak (EAJ) izapiderik egin gabe.*

- *Bigarrenez, administrazio-bidetik Antonio Trueba Auzo Etxearen barnealdea birgaitzeko plan berriaren barruan dauden hiru obra-proiekturen bigarren fasea izapidetzeko eskatzen dugu.*

*1.- "301,20 m$^2$-ko erabilera anitzeko areto nagusi berria. Antonio Trueba zinema zaharrean, erdisotoan 165 eserleku ipintzea" proiektuaren bigarren fasea.*
*2.- "Kale-mailan 190,79 m$^2$-ko Gazte Txoko Berria" proiektuaren bigarren fasea.*
*3.- "Elkarteen esku jartzeko 369,63 m$^2$-ko eraikuntza berriko planta" proiektuaren bigarren fasea.*
[...]

Eztabaida amaitu ondoren eta idazkari kontu-hartzailearen aurkako txosten juridikoa ezagutu ostean, AEI taldeak, proposamenaren egileak, bozkatu baino lehen gaia aztergaien zerrendatik ateratzeko eskatu du.

Bertaratutako guztiek mozioa baztertzeko eskaeraren alde bozkatu dute eta aho batez erabaki dute erabaki-proposamena ez bozkatzea.

**17.- GALDE-ESKEAK.**